

Bat bera ere eror ez dadin

Saioa Iraola

Azaroaren 25ean, agintari politiko andana ikusi nituen puntu more-dun pankartaren atzean, argazkira-ko dotore-dotore jarriak; ardura politikoaren erakusle, diskurtso politikoki zuzena ahoan eta benetako eguneroko jardunak eskatzen duen konpromisoa oihaltzen estali nahian. Konpromisoa politikoa 365 egunetan erakusten denez, azaroaren 25ean eginiko adierazpenak ongi daude, baldin eta urteko egun guztietan emakumeok askatasunean bizitzeko politikak eta neurriak sustatzen badituzte, eta ez da kasua.

Hortxe dugu Genero-indarkeriaren aurkako 1/2004 Lege Organikoa, hutsunez bete. Borroka feministaren garaipena izan zen lege hura jada zaharkitu zaigu, batetik, indarkeria matxistaren kontzeptualizazio hertsia duelako, harreman sexu-afektiboe-

tan sortzen diren biolentzia egoerak soilik hartzen dituelako aintzat: «Kontzeptualizazio horren arabera, datuak murriztuta daude: Nagore Laffage ez da indarkeria matxistaren biktimatzat hartzen, ezta Gasteizen urtarrean hildako umea ere» (Josebe Iturriotz, “Berria”, 2016ko apirila); eta bestetik, legeak biltzen dituen laguntza sozialetan izugarritzko murrizketak egiten ari direlako. Lanbide-ren politika eskasak ditugu adibide nagusi, zeintzuek urruntze agindu bat edukitzea eskatzen duten, indarkeria sexista egoeran den emakume bati prestazio soziala emateko. Legeak arazoaren muina ez du konpontzen, adabaki bat jartzen du, baina garrantzitsua deritzot legean egiten den bortizkeria matxistaren definizioa osatzeari eta legeak jasotzen dituen zerbitzu judizialak, asistentzialak... ikuskatzeari.

Bortizkeria sexistaren konponbide gisa, hezkuntzaren garrantzia jarri ohi dugu jopuntuan. Eta legeak prebentzioa aurreikusten badu ere, nolako hezkuntza-politikak sustatzen dira tratu onetan eta hezkidetzan oinarrituak? Ikastetxearen, irakasle batzuen edo udal administrazioaren borondatearen arabera saio batzuk soilik antolatzen dira. Badakigu EAEn, adibidez, Hezkidetzaren Plana sortua dela, baina horren aplikazioan proba pilotu batzuk baino ez dira jarri ikastetxe gutxi batzuetan. Eta horri Lomce legea gehitzen badiogu... hezkuntza izango bada gure etorkizuna, hau kaka zaharra!

Bizitzak lurperatzen segi ez dezagun, bizitza delako dugun handiena, denon bizitzaldi oso eta duinak ahalbidetzeko indarra, elkartasuna eta ardura politikoa ezinbesteko osagai dira, bidean ahizpak eror ez daitezen. •

Espezie inbaditzailea

Joxean Agirre

Esaten dute etxeko liburutegiari begira norbere biografiaren lerro nagusiak ikus daitezkeela. Nirean ez. Gatzetako etapa marxista, liburuetan hain oparoa, desagertu egin zen. Amak erre zituen gehienak baserriko ekonomikan anaia atxilotu zuten batean. Egunak eman zituen sukaldeak ketan, ez baitago Leninen obra osoa eta Ruedo Ibericoko liburuak baino erregai txarragorik, eta kedar usain susmagarria gelditu zen denbora askoan. Ea sutarako liburuak aukeratzeko zein irizpide erabili zuen galdetu genionean, autore bizardunak hartu zituela erantzun zigun.

Bazen beste liburu multzo txiki bat baserriko sotoan “zulo” batean gordeta urteak eman zituena (lehen etxe askotan ziren “zu-

loak”). Franco hil zenean, hezetasun usaina kentzeko, teilatupean haizetan eduki genituen, baina zaborretan bukatu zuten. Emaus-en bukatu zuten ere ikasketa garaiko liburu gehienek. Gaur etxean daudenak literaturari lotuak dira nagusiki. Baina liburua espezie inbaditzailea da eta nireek egongelako horma eta laurden kolonizatu dute. Aspaldiko ametsa da dozena bat autore kutun bakarrik hartu eta haien obra osoa biltzea, baina hori ere ez dakit ona den, tarteka txarrak irakurri behar baitira onak mirestek. Liburutegi publikoak daudenetik etxeko liburutegiak soberan daudela esaten duenik ere bada. Baina ez dago batere argi, harrigarria baita zeinen azkar sartzen dituzten libururik interesgarrienak fondo gordeetako

“erabili ezin” edo “mailegatu ezin”-en katalogoan. Eskerrak norbaitek Amazon asmatu zuen eta, askoz lehenago, Durangoko Azoka. Egunotan gabiltza azokara joan-etorrian eta esan beharra dago zorioneko garelako narratibazaleok, derrigor erosi beharreko dozena erdi bat izenburu kaleratu baitira.

Liburuak buruhauste askoren iturri dira eta inoren etxera joan eta egongelako hormak garbi eta altzariak hutsik ikusten ditudanean aitortu beharra dut, azken bolada honetan “etxeakoandre” ere banaizen aldetik, inbidia pixka bat sentitzen dudala, baina pentsatu ohi dut halakoak burua ere hutsik izango duela, eta “altzaririk gabe”, nahiz eta badakidan nik bezain bete izan dezakeela, beharbada gauza interesgarriagoz. •